


BERRIGARA

38. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, urriak 25

**Migel
Sagastume,
gaztetan
Kuban
ibilia**




**Saihesbidea
Elorregi-Elorrio**



**Elosun
eztabaldan**



**Rugbya
Iñaki
Ugarteburu**




...
kutxa
...

gipuzkoa
donostia kutxa

Sukursale berria ireki dugu Barrenkale 2an

MEMESA



SKF



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diseinua eta goimallako kalitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diseinua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,
tapizak,...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51



UR Kristaldegia

Era guztietako kristaleria:
Espiluak, bidrierak, biselatuak,
plastikuzko asolatzaileak, etab., etab.

Urteaga 8,

Tfnoa: 76 54 68

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
 Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
 Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki
 Arieteleaniz eta Edurne Arenaza
 Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose
 Angel Mikeo, Estepan Plazaola
 eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
 Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
 Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
 Lizarralde, Monika Belastegi,
 Mikel Elkoroberezibar, Josune
 Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
 Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
 Bikuña

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
 Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
 J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
 Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-
 Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri
 Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
 hartzen aldizkarian adierazitako
 esanen eta eritzien erantzun-
 zunik.



Bizi alternatiboa kanpainari amaiera emateko hainbat iharduera antolatu dira igandeko. Horien artean aipamen berezia merezi du *Bizikleta Martxak*. Goizeko 10,45etan Plazan emango zaio hasiera Martxari. Ibilbidea: Angiozar-kalea-Osintxu-Plaza. Bergarako motozaleek bide berdina baina kontrako norabidean egingo dute, eta amaieran erakustaldia eskainiko dute Seminarioan.

26 LARUNBATA

- **Eskubaloia:**
 -Bergara Sumofic - Ormaiztegi (seniorrak) 15.30etan.
- Bergara Sumofic - Jauja (Mutriku) emakumezkoak, 16.30etan
- **Pelota Partiduak:**
 - 4.30etan Bergarako Pelotalekuan: *Vergara II-Maiz II/ Zabala - Ceceaga, Alusti/Salaberria eta Ira-zola - Santi / Iribarren eta Salbidea.*
- **Saskibaloia:**
 - Bergara - Askatuak (kade-te gizezkoak), 16.00.
 - Bergara - Errenteria (senior gizezkoak), 17.30.

- **Bizi Alternatiboa:**
 - Altxorraren bila jolasak. 5etan.
- **Erakusketa**
 Kirol Argazki erkusketa Kultur Etxean. (12.00 etatik 14.00etara eta 18.00-etatik 20.00etara.

27 IGANDEA

- **Bizi alternatiboa:**
 - Herriko auzoetan: Moises Azpiazu dantza taldea 11etatik 13etara.
- Plazan: eskulanak, xakea, karatea, zeramika erakusketa...
- **Saskibaloia:**
 - Bergara-Arrasate (emakumezkoak), 10etan.

FARMAZIAK



- 26 Mozos/Amezua (Arrasaten)
- 27 Mozos/Ruiz
- 28 Camacho/Morales
- 29 Puy/Azcoaga
- 30 Guallar/ Español
- 31 Estella/Corcuera
- 1 Mozos

ZINEA



Colmillo Blanco

- **OSTIRALA:** 10.30etan
- **LARUNBATA:** 5, 7.30 eta 10.30etan.
- **IGANDEA:** 5, 7.30 eta 10.30etan.
- **ASTELEHENA:** 7.30etan.

Cannonball 3

- **IGANDEA:** 11.30.

OGIA



Konde Panaderokua

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
 Jaunartzeak
 Eguneko menua
 Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KIZKUR



Heapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

REMENTERIA Altzariak

Egongelak / logelak
Aukera guztiak / enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

Zergatik ehizan egin?

Udaberrian jaiotako kume ederrak mundua ezagutzen ari dira, haizearen hozkirria eta euri zaparrada osteko lur-usaina gozatzten. Atzo amarekin jolasean, gaur non ezkutatu asmatu ezinda; zapaltzaileak iritsi dira, Milaka ehiztari mendian hara-hona, eskopetak hustu nahian. Begira-puntutik beren barrenean erreprimitu duten bizitza bera dakusate (osasuntsua, berezkoa, kalterik gabekoa...).

Estatuan 1.200.000 ehiztari, Gipuzkoan 30.000. Zorionez, ugariagoak gara abereak bizirik, aske eta pakean ikustea maite dugunok, inoiz tirokatuko ez genituzkeenak; gero eta ugariagoak gainera. Beharbada egunen baten lortuko dugu mehatxupearan bizi den espeziea ehiztariena izatea.

Erakunde eta ehiztarien artean idatzitako Ehiza Legea motz gelditzen da, argi dago ez dela inola ere baliogarria.

A zer adar jotzaileak Euskal Herriko faunaren egoera ezagututa, ehizak oreka ekologikoa mantentzen duela diotenak!

Aspaldiko ohitura eta lanbidea dela diote: "Gure arbasoak ehiztariak ziren". Bai, jan-bizi beharrez

edo ezinbestean, baina baso zein animaliak maitatu eta errespetatuz. Gaur egun ez. Egun ulertezina da ehizan egitea animalien egoera tamalgarria ikusita.

Hegazti eta arrainen birpoblaketak egiten dituztela esanaz babesten dira. Onartezina da, ordea, birpoblaku eta hiltzen jarraitzea. Erakundeak dira ikerketa sakon bat egin eta arazo honi aurre egin beharko lioketenak.

Ehiza, gizaki askoren beste portaera eta ohitura tamalgarri bat; posible ote da jende horri pentsarazi eta beste aukera bat hartzera bultzatzea?

Ekologia aldarrikatzea ez da txori eta zuhaitzez arduratzeaz betetzen, planeta honetako osagai bat garela konturatu, eta ingurune eta inguruko izaki eta espezieak errespetoz zaintzean datza. Hortxe dago kokxa, pentsakera asko moldatu beharra dago.

Inguruko talde ekologista eta mendizaleak gogor arituko gara halako sarraskiak egiteari uzten ez dioten bitartean.

**Amilotx, Txantxangorri,
Mendia Bizirik, Eki eta
Eguzki.**



Tiiira ba!



Josu Okina

Asentzio

Elgetako Udalak onartu du jadanik *Asentzioko Parke Ruralaren* plana EAJren aldeko eta HBren kontrako botuekin. Proiektu honen arabera jabetze bat eta aparkaleku bat egingo dira bertan eta ermitaren eta putzuaren berriztapen lanak ere burutuko dira.

San Antonio

Gipuzkoako Foru Aldundiak San Antonio auzoko *Urteaga kaleko* espaloien egokitze lanen onarpena eta adjudikazioa onartu du dagoeneko. Guztira, 180 cm.ko zabalera eta 265 metroko luzera izango duten espaloiak hauek 37 milioi pezetako aurrekontua izango dute, eta Ingesa enpresa donostiarrak 3 hilabetetan burutu beharko ditu lanak.

Elorregitik Elorriora errepidea



San Prudentziotik Elorriora bitartean bidea egiteko proiektua onartu zuen probisionalki Diputazioak joan den astean.

Artzubitik Kanpazarrera Epele bailaratik joango den lau kilometroko bariante honek 2.000 milioi inguruko aurrekontua izango du eta oraingo Kanpazarreko bidearekin bat egingo

du Sara baserriaren inguruan.

Era berean, bigarren fase batetan, Beasain-Durango kaminoa hobetzeko egitasmoaren barne eginiko bide honek Bizkaiko Diputazioak Kanpazar zeharkatzeko egingo duen tunelarekin bat egingo du; era honetan Arrasatek bere herri barruko trafikoa neurri handi batean murriztu-

ko duelarik. Espero da proiektu definitiboa urtea amaitu aurretik aprobatazea eta obrak osatzea hasten direla.

Deskarga tunela

Bestalde, hurrengo faseetan, Arrasate eta Bergara arteko autobia, Bergarako barianteko hegoaldea eta Bergara eta Zumarragaren arteko hobetzea egingo dira; azken proiektu honetan ere Deskarga mendateko tunel batez zeharkatzea aurreikusten da.

Arrasate eta Bergara artean, bere aldetik, Ifar-Hegoa Korredorea eta bi herrien arteko bidea bilduko direnez, Musakola eta San Antonio artean 20 metro zabalera duen autobia egingo da. Gipuzkoan egin beharko diren obrak 1996 urterako amaitzea espero da.

Emakunde Bergaran

Joan den asteartean *Emakumearen Euskal Erakunde*ko kideak izan genituen Bergaran 1991-1994 bitartean burutu behar duten *Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plangintza* ezagutzera ematen. Emakumei herritar gisa dagozkien eskubideez baliatze-ko baldintza egokiak sortzen laguntzeko Euskal Administrazioak hurrengo lau urteetan martxan jarriko dituen ekintzak zehazten dira bertan. Asteartean bergara dextente hurbildu zen *Emakunderen* bulego mugikorrera eta Udaletxean eman zuten hitzaldira horren berri jasotzeko asmoz.



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ORTZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



□ **Kontzertua**

Jesus Guridi Musika Eskolako Talde Instrumentalak eta Gasteizko Gazteen Abesbatzak hasiera emango diote igandean, hilak 27, aurtengo *Azaro Abendu Musikalaren* edizioari, arratsaldeko 5etan San Pedro Eleizan emango duten kontzertuarekin.

□ **Argazkiak**

Kilometroak egunean *Pol-Pol Argazki Taldekoek* atera zituzten argazkiak ikusgai izango dira *Pol-Poleko* erakusge-lan urriaren 28tik azaroaren 3ra bitartean 7etatik 9etara.

□ **Zabaleta**

Aitor Zabaletak igandean Bizkaian jokatuako *XV. Viverora Igoera* irabazi zuen. Motorretan ere bergararrak bikain; Anjel Bideluze bigarren eta Elizburu hirugarren izan ziren.



Elosun eztabaidan

Balentin Gabilondo Elosuko auzo alkate ohiak eta bere lan-taldeak, ostiralean emandako prentsaurrekoan adierazi zuten, Elosuk ez duela nahi Bergarako alkateak izendatutako Manuel Oruesagasti auzo alkatea. Gabilondoren esanetan, auzotarrek irailaren 14an eginiko bileran Gabilondo eta Oruesagastiren kandidaturak botatzeko erabakia hartu zuten; botazioan, Gabilondoren aldeko 27 boto, Oruesagastiren aldeko boto bat, nulo bat eta hiru

zuri zenbatu ziren. Manueli Udaletxean gertatutakoaren berri ematea eskatu zitzaion eta Gabilondoren kandidaturaren (Anjel Mari eta J.M. Lizarralde, J.L. Lete eta Gabilondo bera) ustez, Manuelek, hori egin beharrean, oraindik Gabilondoren kandidatura desprestijiatzen ibili da. Zentzu horretan, beraien kandidaturan alderdi guztietako jendea dagoela eta Elosuko borondatea betetzea baino ez dutela eskatzen azpimarratu zuten.

□ **Zuzenketa**

Diputazioko Datu Prozesu Biltegiak gaizki prestatu ditur, zabor eta estolderiaren 3. hiruhilabeteko erreziboak, zabor tasaren kontzeptua bi aldiz kobratu delarik zenbait kasutan. Akats hauen zuzenketa automatikoki egingo da *Kutxaren* laguntzari esker.

□ **Jubilatuak**

Asteazken goizean, hilak 23, *Jubilatu-tuetako Gobernu Batzordea* osatzeko hauteskundeak egin ziren eta inpujnaziorik ez balego, hauek izango dira batzorde berria osatuko dutenak: Anjel Herran, Julian Aginagalde, Carlos Gutierrez, Jose Agirre, Joaquin Balzategi, Felix Loidi, Juan Iturbe, M. Pilar Larrañaga eta J.M. Uribetxebarria.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

ayastury

Barrenkale 30
Tfnoa: 76 11 31

Jantzidenda

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

LONBIDE
OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

Kutxaren lokal berria zabalik

Barrenkale eta Plazakoa sukursale berri honetan bateratuko dira



Gaur ostirala, hilak 25, Kutxak Barrenkale eta Plazako bulego zaharrak itxi eta San Martin Plazan eraiki duen lokal berria inaguratu du. Alberto Arizaga Kutxako zuzendari plaentziarrak bulego berriari buruzko xehetasunak eman dizkigu.

Zer eskeiniko du bulego berri honek?

Bulego berri honetan bulego tradizionala, jestiokoa eta komertzioaz arduratuko den beste bat bilduko ditugu. Etorkizunaren erronkari aurre egiteko kalitatezko zerbitzua eskeintzeko prest dagoen bulegoa dugu honako hau, bezeroei zerbitzu profesional eta pertsonalizatu bat emateko prest dagoen bulegoa hitz batetan.

Zer nolako birmoldaketak egin behar izan dira?

Barrenkale eta Plazan genituen lokalak itxi eta guzti hori hemen bateratu dugu; bi sukursale horietako enplegatu guztiak lokal berri honetara pasa eta besterik ez, Simon Arrieta eta San Antoniokoak berdin mantenduko ditugu.

Plantilla berregoki-

tzerik ez da eman, eta etorkizunean jendea konfratatzeko posibilitatea ere ez dugu baztertzen.

Bankuekin konparatuta zein abantaila eskeintzen dituzue?

Aurrezki popularra goa eskeintzen dugula, beraiekin konparatuta. Gutxi ordaintzen dugula esaten du jendeak baina egia da ere gutxiago kobratzen diegula. Dena den, gaur egun, diferentziak gero eta eskasagoak dira entitate ezberdinen artean. Hala ere, jendearengandik *hurbilago* gaudela esango nuke.

Kutxaren lehen bantzerik egin al da?

Urtebete beteko dugu abenduan eta orduan lehen datuak ezagutzera emango direla uste dut, gogor ekingo diogu gaurtik aurrera.

Taberna kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
BERGARA

URKIOLA

Gizon eta
emakumezkoen
moda

Bidekurutzeta 42

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA

San Koloman (San Antolin)

Non zegoen?

Aspaldiko paper zaharretan izen hoietako bi ermita azaltzen zaizkigu Bergaran. Eta altxor baten atzetik bezela hasi nintzen hoiien billa. Han galduta, hemen galduta, ia zaharren batek erantzunen bat ematen zidan, bañan ez eta arrastorik ere... Bi galdera egin ditzazkegu: San Koloman eta San Antolin bi ermita al ziran edo bat?; eta bigarrena: nun zegoen?


Erantzun dezaiozun lehendabizikoari: esan dugun bezela, paper eta liburu zaharretan izen hoietako ermitak azaltzen zaizkigu. Bañan, konturatu nintzan biak ez zirala batean, alkarrekin idazten, baizik garai zaharretan San Koloman, eta geroago, orain 200 urte adibidez, San Antolin. Gañera, idazten zanen arabera, biak leku beretsuan izan behar zuten ezkerro, duarik ez zegoen ez zirala bi ermita, bat baizik: hasieran San Koloman izenekoa, eta gero, debozioen modak eragin eta San

Antolin. San Blasen eta Santa Katalinaren Ermitetan modak izan diran bezela, beren izenak aldatzerañokoan.

Eta nun zegoen?... Paper zaharretan San Koloman (San Antolin) beti idazten zen Santa Katalina eta Ozaetako San Martiñen ondoan. Beraz, inguru haietan izan behar zuan. Behin, Ermita hoienguruan nenbillela, putzu baten ondoan, batek esan zidan hura San Antolin putzua zala, ganaduantzako.

Beste alde batetik, handik oso hurbil dagoen Egin baserriko ate baten gañean, gorritz pintatutako hiru gurutze daude, Santa Luzia baserrian izan du zan ermitaren oroimenez bezela. Horrela ba, San Koloman-San Antolin Ermita bat bakarra zen eta Egin baserri inguruan zegoen, agian baserrian bertan. San Antolinen zurezko irudi bat Ozaetako San Martinen zegoen, seguru aski bere ermita galdu zanean jasotakoa.

Imanol Sorondo



San Koloman-San Antolin Ermita bat bakarra zen eta Egin baserri inguruan zegoen, agian baserrian bertan. Goiko eta beheko ezker aldeko argazkietan Egin baserria.

Behean, eskumako argazkian, San Antolin putzua, Egin baserriaren ondoan. (Gerra denboran ganaduantzako erabiltzen zen aska txikituta geratu zen)

Dixula

TABERNA

Barrenkale 32, Tfnoa: 76 44 95

LARRAÑAGA

- Errioxako ardoak
- Olioak
- Esnea
- Lejiak

eta

ZUBIA

Banatzailleak

Martokua 32, Tfnoa: 76 45 94

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

Kuba: iraultzaren gainbera



Fidel Castro, inoiz baino bakartiago.

Azken hilabetean notizia iturri bihurtu zaigu Kuba. Manuel Fragaren bidaiak, batetik, eta Alderdi Komunistak egin berri duen IV. Kongresuak, bestetik, begi guztiak Karibeko irlara begira jarri dituzte.


Komunismoaren gainberan, Kubako errejimenak berean jarraitzeko asmoak agertu ditu. Europako Estatu Sozialistek, demokraziarako bidea hartu badute ere, Fidel Castrok argi eta garbi utzi du azken egunotan Kuban ez dela inoiz kapitalismoa sartuko.

Urte gogorak datozkie gainera Kubatarrei. Sobiet Batasunak, Castroren laguntzaile leialak, bakarrik utzi du Kuba, eta hauek, sekula baino isolatuago geratu dira. Kuba inoiz baino irlago da.

Petrolio barik, azukrea eta tabakoa saldu ezinik..., turismoa da gaur egun Kubaren dibisa-iturri garrantzitsuena.

Gauzak horrela, gero eta gehiago dira errejimenak asko ez dela iraungo diotenak. Baina badira alderantzizko eritzia dutenak ere.

Orrialde hauetatik Kubari buruzko eritzi batzuk jaso nahi izan ditugu. Migel Sagastume (Raizabalenekoa), Batistaren garaian La Habanan egondakoa, Tomas Astaburuaga, Castrok boterea hartu zuenean Kubatik alde egin zuena eta Miren Aranzabal, turista modura gaur egungo Kuba bisitatu duena. Hiru bergarar horien eritziak jaso ditugu eta hurrengo bi orrialdeetan aurkezten dizkizuegu.



Egoera latza

Zail xamar ipini zaizkie gauzak kubatarrei. Arestian Fidelek berak zioen bezala, zerua ezin da erasotu ezta garaitu ere: eraiki egin behar da. Arazoak, edozein modutan, eraikitze horretan zernolako bitarteko erabiliko dituzten eta dagoeneko aukera agortu ez ote zaien asmatzean datza.

Cuba ez da inoiz ekonomi kulturaren jabe izan; ez dut uste aintzinako espainiar kolonialista edota geroagoko diktadura kapitalistek soilik leporatu dakiekeenik hutsune hori. Kubatar herriaren izaerak ere ez dio mesederik ekarri garapen ekonomikoari.

Blokeoak, bestalde, zaildu egin du irlako agintarien asmo laudagarria. Baina, hala ere, ez dirudi azken urteotan hautatutako bideek asmatu dutenik. Industri sektore desberdinek behin eta berriz porrotik etsigarriena jaso dute, haien ekoizpen-azpiegiturak egokitzeko milioika dolar ifaramerikar inbertituta gero. Fidelek ongi daki, gaurregun Cuba pairatzen ari den ekonomi-egoera latzaren erantzunkizuna berari dagokiola, hein haundi batean.

J.M. Velez de Mendizabal
(idazlea)

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

URRATS
Kafetegia

Ibargaral Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

Migel Sagastume: "Kuban ezin daiteke goserik pasatu"



Migel Sagastume, "Urkiko Magoa", 60 urteko eibartarra. Raizabalenekoa. Gazte denboran La Habanako Tropicana eta Pensylbania kabareteetan ibilia. Berak ezagutu zuen Kuba, Fidel Castroren iraultzaren aurreko Kuba alegia, nolakoa zen kontatu digu.

- Nola sortu zitzaizun Kubara joateko aukera?

behar izan nuen.

- Nolakoa zen urte haietako Kuba?

- Behin Gernikako Mendata auzora, boda batera jotzera joan nintzen Han, La Habanako Tropicana eta Pensylbania kabaretetako gernikar ugazabek ikusi ninduten eta La Habanara joatea nahi nuen esan zidaten. Askok pentsatu ondoren, amarekin batera ameriketarantz joan nintzen.

- Ni egon nintzanean Prio Socarras zegoen presidentea. Orduan pentsatu dolarrarekin parean zegoen eta diruak asko korritzen zuten. Dirua nahi beste zegoen eta Kubanoa berez alegrea denez hura "Viva la Virgen" zen. Lan gutxi eta bizi ondo.

1951n Batistak Estatu Kolpea eman zuen eta dirua pixkat ezkutatu egin zen.

- Kubatarguztiak bizi zireneko ondo, edo kabaretetan inguruan ibiltzen zirenak bakarrik?

- Ez, ez, ez..., denak. Batzuk behar bada hobeto baina nekazariak ere

ondo bizi ziren. Ez zen ezer falta. Okela, azukria, tabakoa, kafea, denetarik zegoen. Materia primen aldetik herri aberatsa da Kuba, lurra fruitu ugari ematen ditu.

- Fidel Castro 1959an jarri zen boterean. Zure ustez Kubak irabazi egin zuen Castroren iraultzarekin?

- Ezta pentsatu ere. Ikusten da nola dagoen. Orain azukrerik eta tabakorik ez dute ia saltzen.

- Fidelekin erregimena azkenetan dagoela diote askok, zuk zeuk ze eritzi daukazu horri buruz?

- Fidelek bizirik irauten duen bitartean erregimenak iraungo du. Hogeitamar urtetan kubatarren laguntza izan badu orain ez dute atzera egingo. Egia da azken

urteetan ia miseria gorrian bizi izan direla, eta Kubatik kanpo boikota egin diotela... Orain Rusiak ere laguntza kendu dio, ez dakit nork lagunduko dion; bakar, bakarrik geratu da Kuba. Eta hori herri aberatsa dela izatez. Lurra batez ere oso aberatsa da. Kuban ezin daiteke goserik pasatu. Jateko nahi beste dago eta bizitzeko ez dute gehiegi behar.

- Sozialismoa ala hil, hori dio kubatar agintariak...

- Barreguria ematen dit, Fidelek Kuban kapitalismoa sartuko ez dela esaten duenean. Nondik biziko da orduan?. Nori saldu eta erosi behar dio?. Dirurik ez badago ze etorkizun dauka Kubak?

Ikusi da Russian ere, zerbait zutelakoan begira nola bizi zireneko...

**T
GANBARA**

**Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**B
E
R
N
A**

**A
R
R
A
S
A
T
E
A
R
R
A**

**Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.**


Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19

BERGARA

Tomas Astaburuaga

"Fidelek ez dio botereari uko egingo"



Tomas Astaburuaga Fidel Castro boterera heldu zenean Kubatik alde egin zuen horietako bat da. 17 urte zituen 1959an Kubako Iraultza gertatu zenean. Aita, Matxinbentakoa, Euskal Herritik Kubara joan zen gaztetan eta kubatar batekin ezkondu zen. Tomas bere amonaren etxera, Bergarara, etorri zen 1961an hango egoera ikusita aitak bialduta: "Ama ez nuen berriz ikusi, bi urte geroago hil bait zitzaidan".

Oihalen denda baten jabe ziren Tomasen gurasoak, Fidelek kendu zien arte.

Bergarara etorri eta hiru hilabetera "Martin Zabaleta" tailerretan (orain IMPRECI dena) lanean hasi zen eta gaur egun lantegi berean dihardu.

Orain dela 30 urte Kubatik irten zuenetik ez da berriro Karibeko irla-

ra hurbildu, baina han gertatzen ari denari buruzko eritzia badu, "benetan gaizki ikusten dut egoera, unibertsitateaz eta ospitalaz gain ez daukate ezer. Jateko gutxi, erropak eskas... Kubak gauza bat dauka alde, hain zuzen ere klima, bizimodu erraza dute eta bizitzeko gauza haundirik ez dute behar".

Kubaren etorkizuna beltz kolorekoa ikusten du: "Fidelek ez dio botereari uko egingo, hil arte kastroismoak indarrean jarraituko du Kuban. Kubak erreformarako bidea hartuko balu poztuko nintzateke baina ez dut horrelakorik somatzen. Alderdi Komunistak egin berri duen kongresuan argi eta garbi geratu da".

30 urte jaioterrira bueltatu gabe, Kubako egoera aldatuko balitz bihar bertan joango litzateke: "bizitzera ez noski, baina bisita egitera segituan joango nintzateke"

Miren Aranzabal

"Egokiena sistema demokratiko batera irekitzea litzateke"



Tabakoa eta azukrea bezala turismoa izan da beti Kubanoen dibisa iturri garrantzitsuenetarikoa. Gero eta gehiago dira oporrak pasatzera Kubara joaten diren euskaldunak. Kubanoen bizimodu ezagutzeko modurik egokiena ez bada ere, Karibeko irlara turista modura doazenak neurri batean hango bizimoduaren ikuspegi baten jabe dira.

Oporretan Kuban izan den horietako bat Miren Aranzabal dugu. Mirenen eritziz, "turistek Kubaren alde bat bakarrik ikusten dute".

Hala ere bertakoekin harremanak izateko aukera izan zuen gure solaskideak: "Guk ezagutu genituen kubanoak ez zeuden batere konforme hango egoerarekin. Premiazko produktuak faltan botatzen zituzten. Turistekin harremanetan jartzen direnak kexu asko izaten dute. Bai-

na badaude kanpokoekin harremanetan jartzen ez direnak, errejimenaren aldeko direnak. Badakite gauza ugari falta zaiela, baina Estatu Batuak egiten duen boikotaren erruz dela diote". Castrok agintean luzaroan iraungo ez duela pentsatzen duten horietakoa da. Aldaketak derrigorrezkoak direla uste du: "Sobiet Batasunak laguntzarik ematen ez dionetik, bakarrik, isolaturik geratu dira. Errejimen komunistak ez du etorkizunik. Egokiena poliki-poliki sistema demokratiko batera irekitzea izango litzateke, gauza onak pikutara botatzea pena bat izango litzateke".

Direnak direla, Alderdi Komunistak eginitako azken kongresuan hartutako erabakiak kontutan hartuz aldaketarik ez da nabaritzen, "horrela da, baina berdin ezin dezakete jarraitu, beharbada bi urte".

YAZKI

UME

GAZTE


Neska eta Mutil

Irizar 3

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 16 54

Tfnoa: 76 54 73



Barrenkale 31

Gaspar

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI


FS 
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkia momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Droga arazoak ze alternatiba dauka?



Roberto Etxezarreta
37 urte, langilea

Ez diot irtenbiderik ikusten, Gobernua, Polizia..., denak inplikaturik bait daude.




Maria Eugenia Agirre
26 urte, etxeoandrea

Kirola eta horrelako ekintzak beharrezkoak dira. Egunero tabernetan ibili ordez, beste iharduera batzuk antolatzea.



Jesusa Arregi
56 urte, etxeoandrea

Egun guztian tabernetan sartuta ez egoteko, beste aktibitate batzuk antolatu beharko lirateke.



Esteban Lazkano
23 urte, ikaslea

Egunero tabernetan eta kalean egon beharrean, denbora pasatzeko beste modu batzuk topatzea.

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:

RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA




VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.

Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.



BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA • GIPUZKOA
Tfnoa: (943) 76 23 30 / 76 41 54



**Jarraitu
beharreko
eredua**

Azpeitiko Udala izan da, eraikuntzek herritarrei jartzen dizkieten oztopoei aurre egin dien lehen Udala. Laster, elbarriek zein adinekoek, ez dute inolako arazorik izango kaleetan zehar ibili eta egoitza publikoetan sartzeko.

Bergara, Deba Garaian elbarrientzako eskola eta lantokiez arduratzen den herria dugu. Hala eta guztiz ere, oraindik ez ditu kontutan izan, lagun hauek, kalean zehar dabiltzala izaten dituzten buruhaustekak.

Bergaran, elbarriak eta aiton-amonak, ezin dira gustoko dituzten hainbat tokitara joan, laguntzarik izan ezean.

Ezagutzen ditut hainbat neska-mutil, bere gorpildun aukiei traba egiten dieten oztopoa kentzeko eskatuz, Udaletxera idatzi dutenak.

Beren gutunak galdu egin dira agian, baina argi dago gainerako eskariak bezain garrantzitsuak direla.

Herriak, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak, kaleak, eraiketak eta egoitzak, izatez, denontzat dira.

Juan Luis Bikuña



**Ezkondu
gabeko
bikoteak**

Elkarrekin bizi diren bikoteak, beraien artean ezkondu gabe aurkitzen direnean, alarguntasun pentsioa eskuratzeko aukerarik badute?

Gaur egun eta dibortzioa posible delarik, ezkondu gabeko bikoteek ezin dute alarguntasun pentsiorik jaso. Hau da, beraz, gaurkotasuna duen erizpide nagusia. Ez da elkar bizitzea nahikoa, ezkondua egon behar baita.

Hala ere, kontutan hartu behar dugu Dibortzio Legearen aurretik ezkongabe zeuden bikoteek badutela alarguntasun pentsioa kobratzeko aukera; baina bietatik baten heriotza Dibortzioaren Legea martxan jarri aurretik gertatu bazen eta orduan zeuden legeak medio ezinezkoa izan bazitzaien elkarrekin ezkontzea.

Auzitegi Konstituzionalak hasieran aipaturiko erizpide nagusiak legeen aurrean hiritarrok izan behar dugun berdintasun maila ez duela hausten erabaki du.

Auzitegi honek era honetara oinarritu du bere ikuspuntua: posible dela ezkonduko eta ezkongabeko bikoteen arteko desberdintasuna mantentzea. Eta honen arabera bikoteek alarguntasun pentsioa eskuratzeko aukera izango dutela. Ezkondu gabeko bikoteek, eta ezkontzeko oztoporik ez dutenean, berriaz, ezingo dute diru iturri hori berenganatu.

Beraz, interpretazio edo ulertzemodu irekiena baztertuta izan da, momentuz, ikuspuntu estuago bat nagusitu delarik.

Amaia Zabaleta

ERREKI

Erretegia

Berezitasunak:

Bixigua eta txuletak

Fraiskozuri Enparantza

Tfnoa: 76 38 51



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

HALTZARI

**Fagor altzarien
banatzailea.**

Sukalderako altzariak

SURF

Klrol moda

AISOR

Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill

Bidekurutzeta7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA

Zeuk galde



38. Hamasei urteko neska bat naiz. Gazte-txartelarekin aitarentzako opari bat erostera joan nintzen eta ez zidaten beharpenik egin. Hori bidezkoa da?

Arazoa sarritan gertatu da. Gazte-txartela berez gazteen onurarako erabiltzekoa da eta hori garantizatu ahal izateko, azkenengo atera zen gidan honako hau adierazi zen:

"Karnetaren jabe denarentzako abantailabide izan daitezkeenetan bakarrik erabili ahal izango da karneta eta ez beste batzuren onurarako".

Beraz, dendariak legez ezarritakoaren arabera jokatu zuen.

□ Everestek ezetz

Zoritxarrez ez ziren ez Amaia Aranzabalek iraila aldera idatzi eta erredakziora orain heldu zaigun postalean azaltzen zituen nahiak bete eta *Azpeitia Everest 91* espedizioak ezin izan zuen Everesteko gailurrera heldu. Espedizioa jadanik *Katmandun* dugu eta hurrengo asteko larunbatean itzuliko dira zortzi mendizaleak bidaia aurreratzea lortzen ez badute behintzat. Egunak aurrera joan ahala animoak eta indarrak errekupe-ratu ondoren zer kontatu izango dute, dudarik ez. Amaia-ren marka ere hor dago, bera izan baita Everesteko hegolepora iritsi den Estatuko emakume bakarra. Gailurra lortzea hurrengo baterako utzi beharko dute, irratiz entzun ahal izan genuen erretransmisio batean Amaiak Iosu Bereziartua gailurra bistan zuen espediziokideari esan zion bezala, «mendia hor jarraituko du ta». Oraingoa ezetz esan du Everestek...




□ Aurkezpena

Joan den ostiralean OPEL etxeak atera berri duen OPEL ASTRAREN aurkezpena izan zen Olako garajeetan. Jende ugari bildu zen bertan kotxe ekologikoa deitutakoaren modelu ezberdinak eta nobedadeak gertutik ikusi eta probatzeko asmoz. Era berean, bildutakoiei lunch bat eskeini zitzairen modelu berri honen jaiotza ospatzeko.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

ZUNBELTZ

Kafetegia

S. Arrieta Enparantza
BERGARA

BABESTAILE : Euzko Jaurtza / Gipuzkoako Foru Aldundia / Azpeitiko Urdia
LAGUNTZAILE : Graficas Zuzi / Tinkal & Asociados / Vitoriano / Norena

EVERESTEN OINARRI-KANPAMENDUAN
IRAILAK 24

Kaixo BERRIGARA-Ko lagun guztiak!
Gaur atseden eguna dela eta zuei
hitz batzu bidaltzea pentsatu
dut. Espedizioa oso ondo doa eta
ia askenetan gaudela esatea daukat
hurrengo 10 egunak erabakikorak
izango dira, eta laister ia entzu-
ten duzuten irratiz ikurrina Everest
tontorrean ipini dugula. Laister arte.

AZPEITIA EVEREST 91



"BERRIGARA" ALDIKARIA

SANTANA JAUREGIA

BERGARA (GIPUZKOA)

BASQUE COUNTRY

- SPAIN -

Jose Urdia
Benjamin Urdia
Jose Astero

Jose Arambarri
Jose Berastain
Gustaf Larrañaga

Amairu
Jose Arambarri
Jose Berastain
Amado Arambarri


□ Ripi rap

Ritxar Cuevas, Ripi, 19 urteko panderu eta soinu jole antzuolarra Bartzelonara joango zaigu urriaren 31ean Tapiak trikitilariaren taldearekin batera Negu Gorriaken telonero modura aritzeko. Zeleste Aretoan, Ripi eta Tapiaren taldekideak Irungo talde raperoaren jarraitzaileak berotzeaz arduratuko dira trikitiaren musika alaiarekin. Leturia, Tapiaren ohizko laguna, bajaran dagoela aprobeztatuz, Tapiak Ripiri deituzion eta honek pozaren pozez baietza eman, Negu Gorriaken telonero izateak baino, ilusio gehiago ematen baitio Tapiarekin batera jotzeak.



Zertan dihardute ba?

AGURTZANE LOIDI



Joan den astetik majisteritza ikasketak egin dituen 24 urteko bergar gazte honek Arrasate Press astekarian lanean dihardu Iñaki Galdosen ordean. Agurtzane kazetari lanak egingo ditu.

JUAN BALENTZIAGA



Arte Ederretan lizentziaturiko 31 urteko artista bergarar honek bi koadro aurkeztu ditu azaroan, Zaragozan, burutuko den Estatu mailako artista elbarrituen erakusketarako.

PUB USOR

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

Zatoia
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

LAZKANO
OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

Hau dok barreguria !!

Bazeuan behin Azkoittiar bat Loiolako plazan eta zidarrezko duro bat topau eban lurrian; liburua eskuan eta begixak zerura begira zeuzkan San Inazioaren estatuari begiratuaz esan eban:

- Jango dok mehe zerura begira bahago!

Durua hartu, poltsikuan sartu eta ospa egin eban.

* * *


Domeka iluntzeko azkenengo trena Bergako beheko estaziñora ailegau baiño len argindarrik barik geldittu zan Zapatariko aldian. Trenetik jatxi eta jente guztia oiñez abixau zan kale aldera, baiña mozkor bat zetorren harri koxkorran pare, lo seko. Joan jakon interbentoria eta bizkarretik astindduaz esan zotsan:

- Oiñezkero hobe dozu zuk pe jakitzia, korrienterik eztago eta.

- Rzzz! Zer, hori be

badogu? etaraizu orduan litroerdi bat markakua.

* * *



Badare itsaso erdixan bi naufrago eta batek estu eta larri, arnasia hartu ezinda preguntzen dotsa bestiai:

- Zer, egongo dok lurrik hemen inguruan?

- Bai, bi kilometrora.

- Zein aldetara?

- Behera.

J. M. Elexpuru

Antzinako kontuak

Trikuharriak eta beste eraikuntza megalitikoaren izenak

Batek baino gehiagok pentsatu izan du ze demontre, zer ikusirik daukan triku bezala ezagutzen den animalitxo sinpatikoak mendietan aurkitzen ditugun trikuharriekin.

Zeren dolmen (hizkuntza askotan trikuharriari deitzeko erabiltzen den hitza eta bretaieraz harrizko mahaia esan nahi duena: *tol* eta *dol*, mahaia, eta *men*, harria) batek inolaz ere ez du antzik pentsatzen dugun aberetxoarekin. Edo, agian, trikuek erabili ote zuten bizileku bezala gizakiek eginiko eraikuntza? Hainbeste triku aurkitu ote dira trikuharrietan horrelako deituraz bataiatzeko? Horrelako eta antzerako galderak behin eta berriro errepikatu nituen nere baitan.

XIX. mendean bizi izan zen nafar batek kenduko dizkigu zalantza guztiak. Euskal Historiurrean aintzindari izan

zen J. Iturralde y Suit-ek Nafarroako zenbait eraikuntza megalitiko aurkitu zituen. Garai haietan zelten hilobitzat jotzen zirenguk trikuharri bezala ezagutzen ditugunak. Gure ikerlaria ere eritzi berekoa zen. Eta kontuan izanik eraikuntza horiek betetzen zuten funtzioa, *tregoarria* izenez ezagutzera eman zituen, hau da, *tregoa*tu, atsedena, tregua ematea da; ondorioz atsedena emateko harriak dira gure trikuharri misteriosoak. Nafar ikerlariarentzat zeltiar gerlariei atsedena emateko altxatu ziren eraikuntzak.

Ondoren geratu zaigu iturralde Y Suit-ek proposatutako hitza, baina bere kronologia eta esanahia aldatu egin dira, zeren trikuharriak ez ziren gerlari zeltiarra hilobiratzeko eraikiak izan kronologikoki zelten kultura baino askoz zaharragoak bait dira.

Xabier Larrañaga

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

droa
boutique

Zubiberrri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

ZABALETA ERROTULOAK




Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Iñaki Ugarteburu: "Euskal rugbya goraka doa"

Iñaki Ugarteburuk bi urte daramatza Kirol Zerbitzuko arduradun. Horrez gain, rugbyzale amorratua dugu eta kirol honekin duen harremana azaltzen digu.



Nola hasi zinen rugbyari jokatzen?

- Nire jaioterrian, Eibarren, orain 12 urte inguru. Ondoren Madrilera joan nintzen ikastera eta INEFeko ekipoan hasi nintzen jolasten; handik Filosofia eta Letretako ekipo federatura pasa nintzen. 5. mailan jokatzeari utzi nion pixkat eta entrenadore lanetan sartu nintzen buru belarri.

- *Eta Espainiako selekziñora heldu zinen...*

- Selekziñoko idazkari teknikoa

ezagutu eta berarekin lanean hasi nintzen selekziñorekin prestakuntza fisikoaz arduratuz. Entrenadore nazionalaren titulua lortu nuen...

Orain jokatzen ari den Munduko Koparako sailkatzea ez genuen lortu eta horren ondoren selekziñora utzi nuen entrenatzaileek programatutakoaren kontrola eta erantzunkizuna hartzen ez zutelako.

- *Baina rugbyarekin harremanetan jarraitzen duzu.*

- Eibarreko taldearen ardura hartu nuen bai. Zarautzera joan behar izaten dugu jokatzerara eta 2 milioiko aurrekontuari aurre egiteko bazkideen kuotak, zozketak, udaletxearen etab.en laguntza beharrezkoa zaigu.

- *Euskal rugbyak zer nolako maila lortu du?*

- Gero eta maila hobetuz ari lortzen ari da eta horren frogaz azken bi urteetan promoziñoa jokatzerara joan diren bi euskal taldeek lehengo mailara igotzea lortu dutela litzateke. Talde gehiago daude eta infraestruktura ere hobetuz doa.

- *Eta Udal Kirol Zerbitzutik Bergaran rugbya bultzatzeko asmorik?*

- Guk kirola ezagutzera eman dezakegu baina herritarrek interesa azaldu beharko lukete, bestela ez dago zer egirik.

- *Ba al duzu pronostikorik Munduko Koparako?*

- Normalena Zelanda Berriak irabaztea litzateke, baina Eskoziak eta Ingalaterrak ere zeresanik izango dute, Eskoziak irabaztea gustatuko litzaidake.

Kirol argazkiak

Gipuzkoako Diputazioak antolatutako Kirol Argazkigintzako Nazioarteko XII. Lehiaketaren herriz herriko erakusketa ikusgai izango duzue igandera arte, hilak 27, Kultur Etxean. Guztira,

Europa osoko argazkilari eta argazkizaleek zuribeltzezko eta kolorezko 64 argazki dira. Argazki horietan kirol ezberdinetako imajina benetan politik eta bitxiak ere jasotzen dira. **Hilario Azkargorta** bergararraren lan bat ere ikusi ahal izango duzue erakusketa interesgarri honetan.



MUGICA

Burdindegia

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

FERNANDEZ



Oihal puskak Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22



"Fontsi" Oxirondo Elkarte taldeko mutikoekin

Garai batetan oso ospetsuak izan ziren Seminarioan antolatzen ziren futbol txapelketak. Urteetan, Bergara K.E.ko futbol taldeetako kantera izan zen Seminarioa. Herriko elkarte gehienek beren ordezkaria zuten txapelketetan. Horietakoa bat duzue argazkian agertzen dena, Alfonso Miner "Fontsi" zenak entrenaturiko Oxirondo Elkartearen taldea.

Argazkia, orain dela hamar urte inguru ateratakoa da eta bertan Fontsiarekin agertzen diren mutikoek gaur egun 23-24 urte dituzte.

Honako hauek dira ezkerretik eskumara:

Zutik: Jokin Etxaniz pelotaria, Alfonso Miner "Fontsi", Guillermo Miner, Txema Muñoz, Jose Jabier Zabalza, Gotzon Aranzabal eta Iñaki Zurutuza.

Makurtuta: Andoni Durana, Patxi Arriola, Andoni Eguren, Mikel Eguren, Asier Garitano (gaur Bilbao Athletic-en), Javi López "yepe" eta Juan Luis Arriola.

Argazkia: Iñaki Sotil

IRUBIDE

Taberna

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67



**LASA
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29



ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252.
- Pisua salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu txiki edo buhardilla bat hartuko nuke alokagailuan. 763270.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.
- Pisua salgai: bi gela saloia, sukaldea bainua, buhardilla eta berogailu zentrala. Tfnoa: 76 49 71.

LANA

- Langile bat behar da. Tfnoa: lan orduetan 76-1593
- Latinezko irakasle bat behar dut. Deitu: 76-6327, gaueko 10etatik 11-etara.
- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482.
- Produzio saileko injeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913.
- Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

SALDU-EROSI

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12.
- Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.
- Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479.
- 3 pertsonentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495.
- Karabana berri-berria salgai 5 pertso-nentza-ko abanzeeta guzti. Deitu: 761388.

- Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.
- Logela bat eta altzariak salgai oso merke. Deitu: 761929
- Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.
- Motorra salgai: Osa Horia, 350 cm. kubikoa. Merkea eta ondo zaindua. Tfnoa: 7648 52. Arratsaldeko 7etatik aurrera.
- Erabilitako altzariak erosiko nituzke (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab). Deitu: 768157, gauez.

Hildakoak

Eulalia Elustondo Oregi
91 urte, urriak 17an
Luisa Miranda García
59 urte, urriak 18
Juan Arregi Eguren
32 urte, urriak 21

Jaiotakoak

Aitor Murillo Dominguez
urriak 15ean
Amaia Anton Izquierdo
urriak 20an

AUTOPULLMANS ARABA Autobusak


Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

**EUSKARAZ NOIZ,
ZAHARTZAROAN?**



**BERGARAKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**